

FEDERICO KRUTWIG SAGREDO.—*Ortziren zaldiak*. Haranburu-Editor, S. A. Donostia, 1983.

Hirukoitzetik lehena, naiz eta Belatzen baratza sailaren 7.a osatu.

Bertako Ula eta Uta flamendarrak dira. Hoiiek Burgira datoz, zeren sorgin denbora baita, itxura denez, eta erotikaren hegaletan *chambre d'amour*-en antolakizuna kontatuz hasten da. Egia esan, ulertuko bada eraskinez datorren hiztegiara maiz begiratu beharra aurkituko dugu, irakurketa etenaz lehendik berez dakarren ulerkaiztasuna sakonago nabarituz.

Izenetatik ohar gindezke nor zein den; baina, hala ere, hizlariak, elkarrizketak mailaz gora doazen neurrian heleno hitzez gehiago zerbitzen dira; eta, alderantziz, mailaz behera, bizkaierara ez ezik «Bidebarrietako euzkerea lebienera».

Erhaztunaren jasotzailez bukatuko da.

Honek bere hiztegiak gainera beste eraskin bat dakar, bertan, geographi izen zerrenda dator eta oso beharrezko ikusten dugu zerbait ulertu nahi duenarentzat.

FEDERICO KRUTWIG SAGREDO.—*Garaziko oihanaren thau-ma*. Haranburu-Editor, S. A. Donostia, 1983.

Orain, Ertarotik *Renaissance*-ra sartu gara. Eskozian sortua Flandes, Venezia eta Erromatik Baionara iraganen da. Horietan ikusia eta ikasia kontatu eta erakutsiko du. Besteak beste, arte konzeptuak ere bai, gizarte giroaren barna erregela batzutan jarri nahirik. Hemen ere erhaztuna izanen da nolabaiteko hariaren lokarri, beste eleberrien jarraipenez. Hizkuntza arruntetik irten nahi du, hortarako greko lexikoz anitz baliaturik. Baina, nonbait, hori ezta aski eta elkarrizketetan esal-

diak ez ezik olerkiak ere badatoz frantsesez zein alemanez idatziak.

Egileak bere sorketazko laberintoan sartzen gaitu. Hortarako akelarrez baliatuko zaigu eta Zugarramurdira eroanaz honako aitorkuntzaz bukatu:

*Gure munduan lanhoa dago
Gure buruan ezpaia
Gure bidea jakin nahi dugu
Gure argia bilhatu.*

FEDERICO KRUTWIG SAGREDO.—*Sua ez da hiltzen*. Haranburu-Editor, S. A. Donostia, 1983.

Hemen dator 4. erhaztuna, lehengo jarraipenez. Aintzina Eskoziaren kondairan hasia eta oraingo Eta-ren prolemetara arte, egileak hontaz ere zerbaitxo baino gehiago dakianez. Azpijanak, faltsiak, ausardiak, balentriak, beldurrak, denetarik bada eleberriaren kondairan, gizonen egungo kezkak, ikuspegiak, pentsaerak eta sentierak hor biltzen dituanek. Bai, mitoz, mistikaz..., era guziok saltsa erotikoaz nahasian.

Nork uka lezaioke Federikori fikzio gaietarako duen doaina, ekarria eta ahalmena?

Ageri anitz eskainiz eta himno majikoak kantatuz emango dio akabera. Bertan erabiltzen dituen pertsonaiak eta gaiak, izenez aldatuak edo itxuraz behinikpehin, batzutan oso eza-gunak eta oso etxeakoak egiten zaizkigu frankismoaren kontrako borroketan. Hortaz, Federiko berak, esatekorik bazuen eta zati handi bat hor irauli digu fikziozko eleberriaren bidez.

Bere idazkera populuagandik urruntzen denez, eta guk helderarik eta sumerrerarik jakin ez, maiz edo maizegi joan beharra dugu lauretatik lehen liburua denera «Kultur lexien hiztegiaren» bila edo liburu bakoitzari eraskinez jarri dion